



Goiz eguzkitsu batean hasperenka esnatu nintzen. Zerbaitek esaten zidan egun hura oso gora-beheratsua izango zela, eta bizi guztian zehar gogoratuko nuela.

Inolako berrikuntzarik gabe, goiz ozoa lagunekin igaro nuen, nahiz eta nere bihotzkada hark burutik ez aldegin. Jendeak arraro ikusten ninduen eta ez nekien zergatik.

Nere gurasoei galdegin nien ea zer zen, baina ez zidaten erantzun. Inolako kasurik egin gabe, ohera joan beharra izan nuen bazkalosteko egunerako lotalditxo egitera. Denboraldi batera, beste lekuren baten nengoelarik esnatu nintzen eta bapatean, zera entzun nuen:

—«Ametsen mundura iritsi haiz mutiko, hemen nahi duana egin ahal duk.»

Ni zur eta lur geldituz, ohetik pixamarekin salto egin eta lekua aztertzen hasi nintzan. Zoragarria zen, inon ikus daitekeen lekurik ederrera. Bertan nire nahietako dena zegoen, zuhaitz zoragarriak, loreak, kolorezko pizti eta animaliak...

Gero, ostera ahots hura.

—«Ametsen mundura iritsi haiz mutiko, hemen nahi duana egin ahal duk.»

Pausua leundu nuen eta ahotsa nondik zetorren jakiten ahalegindu nintzen. Nere lanarekin jarraitu nuen hainbat asti eta azkenean txori bat ikusi nuen; zoragarria zuen hegaz egiteko era, bere kolore eta formek edozein liluratuko zuketen, bi aldiz pentsatu gabe bere atetik joan nintzen. Mendi eta oihanak, baso eta haranak zeharkatu nituen eta azkenik txoriarren atzekaldean nengoen, bera eta ni bakarrik, salto izugarri bat emanez txoria harrapatzea lortu nuen. Nik uste ez nuena txoriak hitzegitea izango zen, baina, alderantzizkoa gertatu zen.

Haserre bizian txoriak esan zidan:

—Nola ausartzen haiz, nire ametsen herriko printzesari hori egiten.

Nik momentu hartan ahotsa galdu nuen, hasperen bat bateaz esan nion:

—Nik...

—Ez al dakik atxilo haitzakedala?

—Eeezz.

—Ikusten diat kanpotar bat diagula hemen berriro. Ez haut atxilotuko baina jarraidak ametsen tenplura.

Txoriaren bizkarrean eseri nintzen, buruko urre kolorezko lumei kolpeaz. Urduri nengoen, baina, urduritasunaren, barne-barnean poztasuna, eta ezinegona nuen.

Nere baitan pentsatzen nuen:

—«Nora narama? Non nago? Zer edo nor da gizaki hau? Nola iritsi naiz ona?»

Guztiak zeuden erantzunik gabe, azkarra bat ere ez, baina tinko heltzen nion lumetatik ametsen mundako gizaki hari.

Bidaian zehar txoriak esan zidan:

—Ba al dakizu non zauden?

—Ba egia esan, ez.

—Nahi al duzu esatea?

—Bai, mesedez.

—Hau ametsen mundua da eta zu eta beste haurren amets ez eginik dago. Hemen dituzu aurki ditzakezun izaki harrigarri eta arraroenak, animalia politenak, ibai luzeenak... Bai hemen bakarrik ez dira gauza arraro eta onak bizi, hemen bizi dira baita ere izaki nazkagarri eta iguingarrienak, guk khronoak izenaz eza gutzen ditugunak.

—Aizu, printzesa, egin ahal dut beste galdera bat?

—Bai, esan beldurrik gabe erantzungo dizut eta.

—Zergaitik eta nola iritsi naiz ona?

—Ez da oso zaila erantzuten, ba amets liluragarriak egiten dituzten haurrak hona ekartzen ditugu eta hortaz aparte mutil ona izan behar da.

—Nola itzuliko naiz etxera?

—Hori zeure kabuz bilatu behar duzu, pentsa ezazu esan dizudanaz!

Hori esanaž batera desagertu egin zen. Ni tenpluaren aurrean nengoen, tenplura sartzea pentsatu nuen eta ate aurrera iritsi nintzen. Halako batean ahots batek esan zidan:

—Aizak mutiko!, nork bidali hau?

—Inork ere ez, baina printzesak hona nekarrenean desagertu da.

—Nola esan duzu? Printzesa desagertu egin dela? Ziur khronoak izan direla.


Bi aldiz pentsatu gabe, eha khronoen bizilekua non zegoen galdetu nien. Beraiek Khronoak «Inonezean» bizi direla esan zidaten. Nahiz eta erantzuna ongi ez ulertu «Inonez» aurkitzera joan nintzen printzesa salbatu eta etxeko bidea esateko.

Inozeza non dagoen galdezka eta galdezka joan nintzen eta azkenik agure jakintsu batengana iritsi nintzen, aurkitzeaz batera galdetu nion:

—Mosedez agure, esango al zenidake «Inoneza» non dagoen?

—Inoneza denean dago eta ez dago inon.





Oraingo honetan ez nuen tutik ere ulertu. Aurrera oinez jarraitu eta aldi batera pentsatzen hasi nintzen:

—«“Inoneza” denean dago eta ez dago inon, haur onak bakarrik sar daitezke hona, “Inoneza” khronoen bizilekua da.»

Guztiaren lotura aurkitzen hasi nintzen. Ametsen munduaren kanpokaldea inguratzen duen esfera bat da inoneza, horregaitik, denean dago, baina ez dago inon, gainera, khronoen bizilekua da, eta khronoak maltzurak dira. Kontu handiz ibili beharko dut.

Orain dena zegoen loturik, bakarrik khronoen mundura igo behar nuen. Ez nuen uste zaila izango zenik zeren tontor batetara igonik ia ametsen mundua inguratzen duen esfera ikutu daiteke. Hori printzesari jarraika ikasi nuen. Berehala khronoen mundura igo nahi nuen eta korrika laster baten iritsi nintzen mendi tontorrera. Bidean ahotsaz gogoratu hintzen, nahi dudana egin ahal dut, ba khronoen mundura igoteko eskatuko dut.

Kontu handiz esferaren kanpokaldera irten nintzen. Harriduraz guztiari begiratu nion, nazkagarria zen, ametsen munduaren koloretasuna eta khronoen munduko lohia ezin zintezkeen aldekatu. Buelta ematera nindoala nere gurasoetaz, printzesaz gogoratu nintzen, ez, ezin nuen etsi aurrera jarraitu behar nuen.

Denbora gutxira, tenplu antzeko zerbait ikusi nuen eta lehiaz inguratuta ikusten zen. Hurbiltzen nindoan erara ahots batek gero ta gogorago oihukatzen zuen; «lagundu nazazu» eta hitzak haizean galtzen ziren. Halako baten argi bat, printzesaren argia.

Isiltasunean barrena tenpluan sartu nintzen. Argia zegoen lekura joan nintzen eta Khrono batzu printzesa inguratzen zeuden bertan.

Printzesaren argitasuna gutxitzen zihoan pasatzen zen segundu bakoitzeko (ulergarria zen). Zerbait egin behar zen eta azkar. Laguntza bila abiatu nintzen korrika hasi eta zulora iritsi baino lehenago atzerantza begiratu nuen. Ez zegoen argirik, hila zen. Nire izena gogorki entzuten hasi nintzen, begiak zabaldu eta nere gurasoak ikusi nituen. Gero konturatu nintzen amets bat izen zela, baina hala ere errudun sentitzen nitzen, printzesagatik, hilik, dena nitatik, egin ezin nuen ekintza bakar hargatik. ■

